

TRAMITAZIO ELEKTRONIKOA

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen arabera, administrazio prozedura baten edozein izapidetarako administrazio publikoekin harremana bitarteko elektronikoz izatera **behartuta egongo** dira honako hauek besteak beste:

- Pertsona juridikoak
- Nortasun juridikorik gabeko entitateak

Beraz, zuek behartuta zaudete dirulaguntza honetako tramite guztiak elektronikoki egitera.

Horretarako, argi izan behar duzue eskaera egiten duzuenean **mantendu behar direla bai elkartearen ordezkaria, bai mugikorra, bai helbide elektronikoa.**

Eskaera egiteko

Elkarteak izenpe txartela baldin badu, izenpe txartelarekin, eta bestela, elkartearen ordezkaria izango denaren BAKQ txartelarekin.

www.zarautz.eus / TRAMITEAK / DIRULAGUNTZAK / GAZTERIA: Zarauzko gazteek proiektuak garatzeko dirulaguntzak edo Gazteria Departamentuko dirulaguntzak / √ Online tramitazioa hasi

Eskatutako datu guztiak eta dokumentuak sartu.

Jakinarazpenetarako

Administrazio publikoek abisua bidaliko dute interesdunak eman duen gailu elektronikora edo helbide elektronikora, eta abisu horretan, adieraziko diote jakinarazpen bat eskura jarri diotela. Abisu hori ez emanagatik ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da.

Ordezkaria jakinarazpen elektronikoaren edukira sartzen den unean egintzat joko da.

Ez onartuztat joko da haren edukia ez bada eskuratu jakinarazpena eskura jarri zenetik **hamar egun natural** igarotakoan.

OHARRA:

- Kontuan izan dirulaguntza lerro horietan tramitazioa batera egiten dugula eskatzaile edo talde guztientzat.
- Norbait atzeratzeak prozesua geldiarazten du.

Gazteria Departamentuak laguntza eskainiko du, behar bada, eskaerak egin eta kudeatzeko.

Arduraduna:

Onditz de Leizaola

Gazteria teknikaria

Zigordia kalea, 34

943005122 / o-leizaola@zarautz.eus